

ESTRATEGIA DIGITAL ETA KORPORATIBOAREN KABINETEKO BURUA

Ibon Oñate Zamalloa

Zornotzan jaio zen, 1976ko otsailaren 12an.

Prestakuntza akademikoa:

Produktu elektronikoen garapeneko eta programazioko goi-mailako teknikaria (1996-1999)

Industria Ingeniaritza Teknikoko (elektronika) ikasketak, Gasteizko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan (1993-1996)

Lan-esperientzia:

Dominion t.i. enpresan hasi zuen bere lanbide-karrera; lehendabizi programatzaile, Interneteko analista eta WEB teknologien irakasle izan zen (1999-2001), eta, horren ondoren, proiektu-zuzendari eta administrazio publikoetako zuzendari iparraldean (2001-2005), Exact Software Basque Country enpresaren bazkide sortzaile eta zuzendari nagusi (2005-2008), Deusto Solutions enpresaren bazkide sortzaile eta kontseilari delegatu (2005-2009) eta administrazio publikoen iparraldeko negozio-unitatearen zuzendari, I.T Deusto enpresan (2008-2009).

Esperientzia handia du sektore publikoan, eta BiscayTIK fundazioaren zuzendari nagusi aritu da, dedikazio eskusiboa eskainiz, 2009tik 2013ra. Hain zuzen ere 2013an, Administrazio, Zerbitzu Orokorretako eta Berrikuntza Publikoko zuzendari nagusi kargua bete zuen (2013-2015), eta zenbait zuzendaritza-batzorde eta administrazio-kontseilutako kide izan da - Lantikeko lehendakariorde - BiscayTIK fundazioaren patronatuko kide - Zugaztelgo lehendakariorde.

2015etik 2019ra, Koordinazioko zuzendari nagusi eta Modernizazio, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Kabinete buru jardun du. Aldi berean, kargu hauek bete ditu: Gordetegi Frankoko Partzuergoaren Batzorde Betearazleko lehendakari, Aparkabisako idazkari, Basalango aholkulari, Euskalduna Jauregiko aholkulari, Lantikeko lehendakariorde, BiscayTIK fundazioko lehendakariorde eta Zugaztelgo lehendakariorde.

Ingeles, euskara eta gaztelania maila handia du, ahoz zein idatziz, eta Brasilgo portugesez ere egiten du, oinarrizko mailan.